

Pintada eta kartelen mozioa onarturik

ARRASATE ^{PRESS}

1993ko martxoak 5

183. zenb.

Elurra
teilatuan...



**Emakume
baserritarren
elkartasuna**

Familia maitea:

93-94 ikasturterako onarpen garaia iritsirik, zuei zuzentzen gatzaizkizue informazio labur bat eskainiz.

Komunikabideak direla medio, jakinaren gainean egongo zarete ikasleen onarpenerako epealdia martxoaren 1etik 15era, biak barne, zabalik dagoela.

100 urte baino gehiagoko esperientzia batez, "La Merced" Ikastetxeak:

— **Pertsona hiru dimentsiotan, pertsonala, soziala eta erlijiosoan, hartzen duen hezkuntza bat eskaintzen du.**

— **Zentruko Heziketa Proiektu batez erantzuten du, tradizioa badauka ere, bizi garen ingurune euskaldunean proiektatua dago etorkizunerako.**

— **Lantalde gazte, dinamiko, prestatua eta bere heziketa lana ilusioz egiten duena eskaintzen du.**


— **Haurrak eta gaztetxoak 3 urtetatik 14 urterarte onartze ditu (laster 16 urterarte).**

— **Instalazio handiak eta ongi zainduak ditu.**

Ziur gaude informazio txiki honek zuen seme-alabaren etorkizuna erabakitzen lagunduko dizuela.

Desio duzuenean murgildu zaitezke gure Heziketa proiektuan, xehetasun gehiagoko informazioa nahi baduzue, dei egin edo eskolara etor zaitezke. Egunero edozein ordutan, zuen esku aurkitzen gara. Pozik hartuko zaituztegu.

Zuzendaritza taldeak zuen atentziora eskertzen du eta agur bero bat bidaltzen dizue.



la merced
IKASTETXEA

J.L. Iñarra Pasealekua
Tele: 79 20 92 / 79 27 73
20500 ARRASATE

Zatoz ezagutzera

ZUHAITZ

jatetxea!



JOSU

TXOKOLATEGIA
KAFETEGIAElkano, 25
ARRASATE
Tfnoa: 77 03 66Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso duAldizkari honek
Euzko Jaurleritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

Ertaroko Haratuztetik Ihautei Posmodernora


Gaur egun haratuzteen izaera zeharo folkorikoa bihurtu da. Ertarokan, ihautei garaian, hierarkia irauli egiten da: bufoia errege ezartzen du herri osoak, gero herri horrek irainak eta trufak jaurtiko dizkiolarik. Bufoiaren erregetzaldia amaitzen denean, herrikoak jipoi-tu egiten du. Ertaroko barregarritasunaren sinbologian, heriotza jaiotze berri baten baldintza baino ez da; gaztetasun berri bat sorrerazteko, indartzeko. Aro klasikotik aurrera, berriz, herri jaien barrearen desegituraketa prozesua nabaria da. Ordurarte sinbolikoa dena, kritikotasun hutsean geratzen da, ironia bihurtzen da. Horren ondorioz, herri jarrerak bere ezaugarri publikoak galtzen ditu eta atsegin subjektibo bihurtzen da. Herriak bere talde nortasuna galdu du. XVIII. mendean barre algara alaitua jokaera gaizto eta gaitzestua bilakatzen, X eta XIX. mendera arte gusto txarreko, lizun eta arriskutsuztat hartuko da Halere, mozorroak oso estimatuak dira XIX. mendeko nekazal gizartean. Nekazariak ederki asko dibertitu dira herria zeharkatzen, gudariz, aberatsez eta emakumezko nahiz gizonezko mozorrotuta. Joan den mendean herri giroan txantxa estimatuenak fartsak dira. Horrelakoak dagoeneko ez dira garai bateko oihartzuna izaten.

Mozorro nartzizista

Jai barrearen ostean, barre leherketa da desagertze dagoena. Desgizarteratze prozesuarekin batera, barrearen pobretzea datorrigu nartzizismo berriaren eskutik. Baina gizaki posmodernoa ez du oraindik umorea galdu. Izan ere, bizi dugun honi umorezko

gizartea deitzen diote soziologo adituek. 80. hamarkadan haratuzteak berreskuratzen direla dirudi, zeren eta berez ez da ihauteien tradizioa berreskuratzen, mozorrotzearen ohiturari modu berrituan eusten zaio, hau da, modu posmodernoa. Gaur egungo ihaute-riak mozorro jaietan kokatzen dira. Gizaki posmodernoa ez du gizartea askatu eta hierarkia irauli nahi, ondo pasatzea besterik ez du nahi; jai ludikoa barre kritikorekin gainera azaltzen da; norbera da bere buruari barre egiten diona. Barre egiteko ahalmena da huts egiten duena. Norbere buruan murgilduta, gizaki posmodernoa gero eta zailtasun handiagoak ditu barrezka hasteko, barrez lehertzeko. Iraultza sinbolikotik abiatu eta fartsa kritikotik igaro ondoren, barrea utzi eta jai irrifartsuraino heldu gara. Hori bai, umorea eta mozorroa galdu gabe!

PATXI X. IBARZABAL



• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. Zuzendaria: Arantzazu Loidi. Kazetariak: Beñardo Kortabarria, Rosa Mondragon. Publizitatea: Kepa Oñden (77 06 90). Administrazioa: Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15). Maketazioa: Goio Arana. Erredakzio-kontseilua: Jon Mujika, Karmele Zuazubiskar, Jabier Ozaeta, Maribel Aranburu, Patxi Montero, Iñaki Mendiguren. Kolaboratzaileak: Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udako Inguurugiro Eskola, Juan Bautista Agoria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Iñintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liherr Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Mario Egües. Banaketa arduraduna: Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.300. Loge-Gordailua: 1124/88. ISSN: 0214-4654. Frankeo kontzertatua. Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS
paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Beñardo



ZENBAKI
Aholkularitza

**Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak**

Basabe industrialdea
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 88 75

Biteri Etorb. 15
ARRASATE
Tfnoa: 77 12 39

URRATS

AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3
Tfnoa: 79 87 74
ARRASATE

**ARRASATE
PRESS**

77 05 65



**Alkoholarekin arazoak
daukazuz?**

**Agian,
"Alkoholiko
Anonimoek" lagundu
ahal dizute!!**

**Alkoholiko
Anonimoak**

3. areako Informazio bulegoa
(Gipuzkoa)
Tfnoa: 61 93 38

•••••
**Liburutegiaren
funtzioaz**

Monterron liburutegi publikoa da. Publikoa izateak esan nahi du jende mota guztiak eta edozein adinetako pertsonak etor daitezkeela: bai ikasleak bai jubilatuta daudenak edo baita etxeko-emakumeak ere.

Momentu honetan, zortzarrez, liburutegi publiko gehienek arazo berdina daukate, hau da, ikasleekin betetzen direla.

Gu saiatzen gara arazoa ulertzen, izan ere ez baitago eskoletan ikasteko gela aproposik edo, agian, ikasleek ez daukatelako euren etxeetan kontzentratzeko isiltasun eta lasaitasun nahikorik. Baina bibliotekak ez dira ikasteko bakarrik. Informazio zentruak ere badira, kontsulta egiteko lekuak. Beste aldetik, funtzio ludikoa ere badute, irakurketarekin gozatzeko aukera ematen digute. Azterketa garaian eskolako apunteekin ikastera etortzen direnek ez dute liburutegi baten beharrik. Apaletan dauden liburuak sobran daukate, dekorazio gisa. Eta hau ez da liburutegia erabiltzea, horretarako mahai bat eta aulki bat besterik ez dira behar. Agian, eskola-liburutegiak egongo balira, denontzat lekua egongo litzateke. Zergatik ez dute ikasleek zerbitzu hori eskatzen? Errezagoa da pentsatzea, noski, liburutegi publikoak ikasteko lekuak direla eta, beraz,

ikasleentzako soilik. Eta edozein kontsulta egitera datozenak, ez al du esertzeko eskubiderik? Zutik egon behar du? Eskubide hori ukatzea ere "ez da justua". Izan ere, liburutegia denontzat da.

**MONTEIRON LIBURUTEGI
GIKO LANGILEAK**

•••••
Martxoaren 8an

Datorren martxoaren 8an, gehiegikeria nabarmen den gizarte honi begira, kezka izugarritzko sentipenak estutzen dizkigu barrenak. Gizarte honek emakumeoi ematen digun lekua ekonomikoki gizonaren menpe egotean datza; bestela, lan murgildu, ordukako eta gaizki ordainduetan aritzera, pobretasuna, marginazioa eta bi edo horu aldiz neke-ordu gehiago jasatera eta gizarte indibidualista, insolidario eta apatiko honen konplize izatera bultzatzen gaitu.

Legeek eskubideak ditugula onartzen dute; baina benetan, inolako lotsarik gabe, espedientea betetzeko baino balio ez duten paper hutsak dira. Kulturak, dituen adierazpide guztien bidez, sexu-objektu, maila baxuagoko gizonezkoen jabe-

gokotzat agertzen gaitu emakumeok.

Kontestu datesko hene-tan, gizarte matxista eta patriarkal honek emakumeon-gan eragiten duen indarkeria bortitzaren adibide dira, besteak beste, Bosniako gerran bortxatutako 50.000 emakumeak, Alcaserreko hilketa ikaragarriak, Estatu espainiarreko komisaldegietan emakume euskaldunek jasaten dituzten aberrazio sexual, tortura eta bortxaketak eta eguneroko berrietan ugari diren emakumeen bortxaketak.

Bada ordua gure emakume pentsamendua indarrez eta harrotasunez ateratzeko, feministen irrintziak gudan oihartzuna izan eta gure behar eta nahiak biltzeko eta, gure hitz sendoaren bidez, ditugun esigintziak elkartzeko.

Pertsonak garen aldetik, Euskal Herria osatzen duten gainerako taldeekin batera gizartean aukera eta erantzukizunetan berdintasunez, parez pare, parte hartzeko eskubidea esigitzen dugu.

Gure partaidetza beharrezkoa da. Gure emakume-ikuspegia, gure emakume-sentipena, gure emakume-jokalaria... hainbeste aporta dezakegu! Hain gara garrantzitsuak eta beharrezkoak!

Mobilizatzeke, bat egiteko, elkar aurkitzeko, ... ordua da.

Bosnia... Euskadi... aski da!

EGIZAN

UGARTE

**Industri
hornidurak**

Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96
Telefax: 793412



OIHALAK

Errekabarren, 20
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 80 90

Memesa

79 42 22

Nondik etorri behar du emakumearen egoera hobetzeko aldaketak?



Marzelina Errasti Etxekoandrea (80 urte)

Ez dakit, ez da aldaketa erraza, barren-barrenetik hasi behar da, egoera oraindik ere urdin dau eta. Bide horretan emakumeak berak ere badauka zer esan.



Xabi Lara Enpresa zientzietakoikaslea (25 urte)

Joe! galdera zaila da hori. Mentalitatea aldatzen hasi beharko dugu, bai mutilena eta baita emakumeena ere. Oraindik ere matxista xamarrak garela eta mentalitatea zabaldu egin behar dugula.



Jabier Ajuria Arrasateko langilea (59 urte)

Aldaketa hori gobernutik hasi behar da, eurek hartu behar dituzte lehenengo neurriak, Ardanzarengandik hasita etorri behar dira erabakiak, egin dezatela zer bait emakumeentzat.



Mari Tere Azula Etxekoandrea (56 urte)

Hasteko gu geu, emakumeok hasi behar dugu aldatzen, gero jende guztia aldatzeko. Gobernua ere inplikatu egin behar da lan horretan. Baina ez zait formula majikorik okurrizten.



Ines Layana Dendaria (23 urte)

Aldaketa guztion artean egin behar dugu, gobernuaren eta jendearen artean. Eta tokatzekotan, gizonari gehiago tokatzen zaio, oraindik ere gizarte matxista baten bizi gara eta.




Mariano Garcia Langabetua (26 urte)

Denon artean egin behar dugu. Baina emakumeak berak ere badu errua, frankismoaren ondorioz, orain gutxi arte rol konkretu batzuk asumitu ditu eta horiek aldatu egin behar dira.



Ainhoa Mendibil Ingurugiroko ikaslea (20 urte)

Bada, aldaketa heziketatik hasi behar da, umeen heziketatik, txikitatik. Eta zentzu horretan gurasoek ere zeresan haundia daukate, bai gizonak eta bai andreak.



Melchor Murillo Elektronikako langilea (58 urte)

Nik behintzat argi daukat emakumeen egoera hobetu egin behar dela, gutxienez berdintasuna lortzeko. Baina ez galdetu niri nondik etorri behar duen aldaketa honek; hotzean harrapatu nauzue.



ETXEPARE - BILINTX LIBURUBENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 BERGARA
Tfnoa: 76 40 50

Monte taberna

Maalako errabala, 11
Tfnoa: 79 20 56

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetzeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
 Igualetoia 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 79 39 00
 (emakumeak) 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara 76 55 76

DYA
 Antzuola 76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak) 79 13 57
 (Txanda hartzeko) 77 03 46
 77 07 21
 Oñati 78 08 52
 Eskoriatza 71 44 52
 Aretxabaleta 79 74 58
 Aramaio (945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulantziak 45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati 78 04 11
 Bergara 76 14 69
 Arrasate 79 14 39
 Aretxabaleta 79 10 52
 Eskoriatza 79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate 79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile
 burua 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua) 79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero) 79 05 81
 Gasak 900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraloak
 Taxiak 79 12 22
 P.E.S.A. 79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta
 Erabiltzaileen Elkarteak 79 87 77
 KIUB-OMIC 79 51 55

Monterrongo liburutegia
 Monterron 77 01 05

GOARDIAKO FARMAZIAK

5 Ostirala
 Egunez: Amezuza, Santa Marina.
 Gauzez: Camacho, Oxirondo.
6 Larunbata
 Egunez: Ruiz, Maiala
 Gauzez: Puy, Barrenkale.
7 Igandea
 Egunez: Morales, San Andres.
 Gauzez: Puy, Barrenkale.
8 Astelohena
 Egunez: Azkoaga, Ferrerías.
 Gauzez: Guallar, San Antonio.
9 Asteartea
 Egunez: Español, Iturriotz.
 Gauzez: Estella, Matxiategi.
10 Asteazkena
 Egunez: Corcuera, Musakola
 Gauzez: Mozos, Pedro Deunaren.
11 Osteguna
 Egunez: Inzar, Erguin.
 Gauzez: Camacho, Oxirondo.

5 OSTIRALA

ZINEA

"Los blancos no la saben meter" (7,10)

BEINKEKO KANTU AFARIA

Beinkek antolatutako kantu afaria. Arratsaldeko 8.30etan. Uratz Alde elkarteak. Txartelak Beinke, eta Gurean salgai.

ANTZERKIA

Andreak antzerki taldearen "Las tres gracias de la casa de enfrente" obraren antzezpena. Gauko 10.30etan. Oñatiko Santana zinean.

EUSKAL DANTZA IKASTAROA

Euskal dantza ikastaroaren hasiera. Bukaera: ekainaren 18a. 7etatik 8.30etara. Lore Gazteak taldearen eskutik.

MITIN JAIALDIA

Bihar larunbata gauko 10.30etan Musakolako Kiroldogian Txomin Iturberen heriotzaren seigarren urtemuga gogoratuko da. Ordu horretan Ione Goirizelaia zuzenduriko mitina hasiko da eta ondoren jaialdia izango da; bertan, honako hauek hartuko dute parte: Anje Duhalde eta Amuriza, Guk taldea, Txalaparta, bertsolariak eta trikitixa. Sarrera dohainik izango da.

6 LARUNBATA

ZINEA

"Los blancos no la saben meter". 5etan. Sarrera: 300 PTA.

"Dracula" (7.30,10)

ROCK KONTZERTUA

"Cuatro Clavos" eta KTI taldeekin rock kontzertua. Gauko 9etan. Arrasateko Gaztetxean. Sarrera: 300 PTA.

MITIN JAIALDIA

Txomin Iturberen heriotzaren seigarren urtemugako mitin jaialdia. Hizlaria: Ione Goirizelaia. Ondoren, jaialdia Musakolako Kiroldogian. Gauko 10.30etan.

EMAKUMEAREN EGUNeko EKINTZAK GAZTETXEAN

Eguerdiko 12etan txalapartarekin jaialdiari hasiera. 2.30etan herri bazkaria, bertsolariak, diapositiba emanaldia, trikitilari eta dianarekin jaiari amaiera. Arrasateko gaztetxean. Gazte Batzordeak antolatuta.



7 IGANDEA

ZINEA

"Los blancos no la saben meter". 5etan. Sarrera: 300 PTA.

"Dracula" (7.30,10)

MENDIKO IRTEERA

Tologorri mendira irteera. Goizeko 8etan. Partenoitx. Izena emateko: Arlutz tabernan. Prezioa: 1.000 PTA bazkideak, 1.200 PTA besteak. Murruxiko mendizale elkarteak antolatuta.

EUSKAL DANTZEN IKASTAROA
Gaur bertan hasiko da euskal dantzen ikastaroa. 15 urtetik gorakoek har dezakete parte ikastaro honetan. Ostiralero arratsaldeko 7etak 8,30etara izango da eta ekainaren 18an bukatuko. Lore Gazteak dantza taldeak antolatzen du eta plazak mugatuak dira. Informazio gehiago lortzeko Gazteentzako Informazio bulegora zuzendu zaitzekete edo 77 00 65 telefono dei egin.

8 ASTELEHENA**ZINEA**

"Drácula" (7,9.30)

EMAKUMEAREN EGUNA

Emakumearen eguna. Manifestaldia, arratsaldeko 7.30etan. Sebero Altuben. Ondoren luntxa Jai Zale elkartean. Egizan eta Emakumeen Asanbladak antolatuta.

EUSKARAREN ASTEA

"Txirula majikoa" eta "Abere beldurtiak" antzerki emanaldiak, goizeko 9.30etan. San Andres herri eskolan.

KULTUR ASTEA

- "Juego y socialización" gurasoentzat hitzaldia. Hizlaria: Iñaki Armendariz. Arratsaldeko 6.30etan. Erguingo eskolan.
- Yolanda Arrietaren hitzaldia. O.H.O.ko 5. mailakoentzat euskal idazleekin topaketak. Erguingo eskolan.

EMAKUMEAREN EGUNeko EKINTZAK GAZTETXEAN

Arrasateko Gazte talde batek Martxoak 8rako Gazte Baztordea sortu du emakumearen eguna dela hainbat ekintza antolatzeko asmoz. Eguerdiko 12.30etan jaialdiari hasiera emango zaio txalapartarekin, ondoren trikitilariekin kalejira, 2.30ak aldera bazkari popularra bertsolariekin eta ondoren diapositiba emanaldia, jai ei amaiera emateko trikitilariak, eta diana izango dira. Ekintza guzti hauek GAZTETXEAN izango dira eta bazkarira joateko sarrera 500 PTAKoa izango da. Horretaz gain, astelehenean, emakumearen egunean, Sebero Altuben izango den manifestaldia batuko dira.

EMAKUMEAREN EGUNA

Datorren astelehenean Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatuko da eta hori dela eta Egizan eta Emakumeen Asanbladak hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Gaur ostirala, gaueko 10.30etan Andreak antzerki taldeak "Las tres gracias de la casa de enfrente" lana antzeztuko du. Astelehenean, arratsaldeko 7.30etan Sebero Altubetik manifestaldia irtengo da eta Arrasateko kaleak zeharkatuko ditu. Egizan eta Emakumeen Asanbladak antolatutako manifestaldia bukatu ondoren, Jai Zale elkartean luntxa izango da joan nahi duten emakume guztientzat.

9 ASTEARTEA**EUSKARAREN ASTEA**

"Astakiloen abenturak eta kalenturak" pelikula, goizeko 9etan. "Etxe sorginduaren misterioa", "Koloreen mundura joan ziren lagunak" eta "Bertsolariak" antzerki lanen antzezpena, arratsaldeko 3etan. San Andres Herri Eskolan.

KULTUR ASTEA

- "La sexualidad infantil" gurasoentzat hitzaldia. Hizlaria: Gloria Gonzalez. Arratsaldeko 6.30etan. Erguingo eskolan.
- Xabier Mendigurenen hitzaldia. O.H.O.ko 8.mailakoentzat euskal idazleekin topaketak. Erguingo eskolan.

10 ASTEAZKENA**EUSKARAREN ASTEA**

"Lau ipotxen bizimodua" eta "Estatu mugikorak" antzerki lanen antzezpena, goizeko 9.30etan. "Gremlins 2" pelikularen emanaldia, goizeko 11etan. Bertso txapelketa eguerdiko 2.30etan.

EUSKARAREN ASTEA

San Andres herri eskolan euskararen astea burutuko dute datorren astean. Euskararen erabilpena bultzatzeko helburuarekin ikasle zein gurasoei zuzenduriko ekitaldiak izango dira astean zehar: antzerkiak, ipuin kontakizunak, musika saioak, pelikulen emanaldiak, herri kirolak, bertsolariak, umeen jolasak... San Andres auzoan batez ere kanpotik etorritako jendea bizi denez, Arrasate herriari integratzea da lortu nahi dena eta auzo mailan euskal musika entzun ahal izango da egun hauetan. Ostiralean bukatuko dira ekitaldiak, goizeko 9etan "Isidoro" pelikularen emanaldia, 9.30etan "Piti eta herri kirolak" pelikula; 10etan txiste txapelketa; 2.30etan herri kirolak, arratsaldeko 4etan txokolatada eta 4.30etan trikitilariekin apartako erromeriarekin bukatuko dira ekitaldiak.

**11 OSTEGUNA****EUSKARAREN ASTEA**

Ipuin kontalarien emanaldia, goizeko 9.30etan. "Nire ama sorgina" pelikularen emanaldia, eguerdiko 3etan. San Andres herri eskolan.

KULTUR ASTEA

- "La sexualidad infantil" gurasoentzat hitzaldia. Hizlaria: Gloria Gonzalez. Arratsaldeko 6.30etan. Erguingo eskolan.
- Edorta Lertxundiren hitzaldia. O.H.O.ko 7. mailakoentzat euskal idazleekin topaketak. Erguingo eskolan.

KULTUR ASTEA ERGUINGO ESKOLAN

Datorren astelehenean kultur astea burutuko dute Erguingo eskolan. Bertako ikasleei zein gurasoei zuzenduko zaizkie ekintzak. Gurasoentzat hainbat hitzaldi izango dira; astelehenean "Juego y socialización" izenekoa, Iñaki Armendarizekin eta asteartean eta ostegunean "La sexualidad infantil" izenekoa. Hitzaldi hauek erdaraz izango dira eta sarrera libre. Bestalde, Gipuzkoako Diputazioak Euskal idazleen elkartearekin eginiko akordio bati esker ikasleei zuzenduriko topaketak izango dira: astelehenean Yolanda Arrieta izango da hizlari, asteartean Xabier Mendiguren, asteazkenean Xabier Etxaniz eta ostegunean Edorta Lertxundi. Asteari amaiera emateko larunbatean kirol lehiaketako finalak, trikitixa saioa, haur jaialdia, haurren lanen erakusketa eta irrati-zale, eta zangoluze eskolako tailerrak izango dira.

“Bi herrirenganako maitasuna, mundu bakarraren aldeko borroka”. Chalatenango, El Salvadorreko herriaren borrokan eman zuen bizia Pakito Arriarnek, kaltetueneztat gizarte zuzen eta duin bat lortzeko. (...) Solidaritatearen langile bezala, euskal herri honetakoak garen gizon emakume bezala, Pakitori eta bere bizia herri horretan edo besteren baten borrokan utzi duten askori eskerrak eman beharrean gaude euren konpromezuaren eskuzabaltasunarengatik.”

Jesus Palacio 93-3-1

egin

“Ez da erraza Korporazioaren lehen urratsek ekarri dituzten iharduera ezberdinak banan banan zehaztea, baina argi dago antolakuntza berriak ekarriko zituela susmatzen genuen espektatiba guztiak jaiotzen hasi direla. 1993a horren lekuko fidela izango da, eta askoz ere gehiago hurrengo urteak. (...) Gaur sekula baino gehiago geratu da demostraturik batasunak egiten duela indarra, eta horixe da denon artean aurrera daramagun proiektua, Kooperatiben Esperientziari krisitik indarberriturik eta Merkatu Bakarraren Europa berrirako egokituta irteteko aukera emango diona”.

Javier Mongelos

TU lankide

“Gustatu edo ez gustatu, denok gara geure ekintzen tributario, eta azken aldian lortutako emaitzei buruz edo gure lantegien gainean ageri diren inkognita latzei buruz gogoeta apur bat egiten badugu, honako ondorio hauetara iritsiko gara, ezinbestez eta egiaz: nahitaez erronka gogor eta zail bati aurre egin beharrean gaude, eta horren barruan dago bazkideen lanen definizio berria ere, horiek izan behar duten paperari garrantzia ematek hasi eta gehiago eta hobeto lan egitea, partaidetza konszientea, kalitate depuratua eta antzeko izenekin, konpetitibitate mailak erabat handitzeko”.

Alfonso Gorroñoitia

TU lankide

Zela finantziatuko da Eskolako eraikin berria?

Eskolan Goi mailako injinerutza ikasketak jartzeak, 600 milioi PTako aurrekontua duen edifizio berria egitea ekarriko du. Orainartekoan, era honetan dago finantziabidea konprometatuta erakundeen aldetik, kopuru guztiaren %70a osatuz:

Arrasateko Udala: 100 milioi hiru urtetan (92-93-94)


Gipuzkoako Foru Diputazioa: 100 milioi 92an.

MCC: 180 milioi hiru urtetan.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza saila: 40 milioi 93an.


Guztira: 420 milioi PTA.

Errealista izanda, proiektuaren gainerako finantziarioa era honetara egiteko asmoa dago: Arrasateko Udalak bere kopurua berraztertzeke konpromezua hartu du, Iturripeko aparkalekuaren arazoari aurre egin behar izatearen aurrean proiektuak izan duen igoera dela eta. 94rako Hezkuntza Kontseilaritzatik ere kopururen bat jasotzeko esperantza dugu, eta gainerakoa, etxean bertan atera beharko dugu ahalegin berezia eginez, Gizabidea Fundazioa, Euskadiko Kutxa eta baliabide propioen bidez.



Inazio Lakunza

Goi Mailako Injinerutza proiektuaren arduraduna



LORATEGI
Iturriotz, 7
ARRASATE
Tefnoa: 790467



- Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
- Otzaratzarrak
- Giltzak gordetzeko armairuak
- Erremintak eramateko gurdiak
- Erremintak gordetzeko armairuak
- Lan egiteko aulkiak

Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

Informazioa nahi baduzu zure esku duzu gure laguntza.



**“Bezeroaren telefonoa”
901- 20 20 20**

Edozein zalantza konponduko dizugu:

- Hornidura-eskabidea
- Kontratazioa: altak, bajak, aldakuntzak
- Ordainagiriaren gaineko argibideak
- Ordainagiriak banketxean helbideratzea
- Kontadore irakurketak hartzea

Eta behar duzun beste edozer kontsulta edo informazio.

IBERDROLA

Plenoan gai ugari eztabaidatsuak

Pasa den ostiralean ohizko eta ez ohizko plenoak burutu ziren Arrasateko Udaltexean. Ohizkoa arratsaldeko 7etan hasi zen eta azalduko 14 puntuetatik bitan ez zen adostasunik lortu: Udalak San Josepe harrobiarekin egin beharreko konbenioan eta 92ko aurrekontuen maileguaren kontratuaren onarpean. Yugoslabiako bortxaketen aurka Emakundeak aurkeztutako mozioa onartu egin zen, nahiz eta PNVk kontrako botoa eman, Udalak emakume bortxatuei laguntzeko neurriak hartzeari buruz. Bestalde, Senideak-ek Peixoto libre uzteko aurkeztutako mozioa eztabaidatu ondoren, PSOE eta PNVk emandako kontrako 11 botuengatik ez zen onartu. PSOEek aurkeztutako publizitate-kartelak kontrolatzeko mozioa onartua izan zen. Pleno Aretoan bildutako jendeak ere izan zuen zeresanik eta azken mozioaren eztabaidan entzule bat zutik jarri eta komunikatu bat irakurri zuen, kalean adierazteko askatasuna defendituz.

Milaka pertsona Peixotoren askatasunaren alde

HBk Peixotoren askatasuna eskatzeko antolatutako manifestaldian, eguraldi txarra egin arren, milaka pertsona bildu ziren larunbatean. Manifestaldia herriko kaleetan zehar San Andres auzora-



Elurraren eragin gaiztoak

Pasa den asteburuan nonahi elurra egin zuen. Errepide, argi indarrean eta telefono sarean ere hainbat eragozpen ekarri zituen eta, besteak beste, Murun izandako aberia baten ondorioz ez da telebista kate bat ere ikusi asteazken gauera arte. Horretaz gain, errepide asko izan ziren astelehen eta asteartean itxita: Gazteiz eta Bilbotik etortzez ezinezkoa izan zen eta inguruko hainbat baserri isolatuak geratu ziren. Hori dela eta, astelehenean Kooperatibetan 3.000 langile inguruk ez zuten lanik egin. Kiroletan ere eragin zuzena izan du elurrak. Igan-dean jokatzekoa zen Mondra-Tolosa partidua bertan behera geratu zen eta beste hainbeste gertatu zen eskubaloiko Arrasate-CAF eta saskibaloiko Mondra-Donostia partiduekin.

ino abiatu zen erreprosioren aurkako eta anmistiaren aldeko lemak oihukatuz. Manifestaldiari amaiera emateko Xabier Zubizarretak eta Jose Mari Olarra HBko Mahai Nazionaleko kideak hitzaldi bana eskaini zuten Herriko Plazan. Gogoratu, bestalde, pasa den asteartean aske utzi zutela Peixoto eta Parisen konfinaturik dagoela.

Gaztetxeko kontzertuetan jende gutxi

Pasa den larunbat eta igandean Gaztetxean izandako bi kontzertuetara ez zen

jende gehiegi hurbildu, nahiz eta bertara etorritako taldeak gaztetxez gaztetxe dabilzaten artean, onenatarikoak izan.

Larunbat gaueko kontzertuan Burgosko "La grima" taldeak jo zuen eta igandean "Iskanbila" talde arrasatearrak eta "Uk Subs" ingelesak. Azken hau arratsaldeko 7etan hasi behar bazen ere, elurra dela medio "Uk Subs" taldea berandu heldu zela eta, gaueko 10etan hasi zen kontzertua. 100 bat lagun bildu ziren bertan eta giro ezin hobea egon zen, bitxikeri moduan, ikusle batek pare

bat bertso bota zituen.

Epelera ibilaldia bertan behera

Eguraldi txarra medio, pasa den larunbaterako antolatuta zegoen Epelera ibilaldia bertan behera geratu zen. Horrez gain, Portaloian bildutako jendea gutxi izan zen eta ibilaldia beste egun baterako atzeratu da.

Elkarri-ren aurkezpena Arrasaten

Pasa den ostegunean Elkarri aurkeztu zen Monterronen. Areto Nagusia bete beteta egon zen eta Jonan Fernandez, Elkarri taldearen sortzaileetarikoa eta gaur bozeramailea dena, izan zen hizlaria.

JAIOTZAK

- Ane Bilbao Ugarte. Otsailaren 22an.
- Eduardo Gerrikabeitia C abeza, 23an.
- Mikel Jara Valmar, 24ean.
- Mikel Andres Azpiazu, 27an.

EZKONTZAK

- Jesus Maria Lozano Fuentes eta Irupe Galdos Zabala, Otsailaren 27an zibilez.

HILDAKOAK

- Ana Josefa Aranguren Galarraga. Otsailaren 24ean. 90 urte.
- Primitiva Gonzalez Dlez. 24ean. 81 urte.
- Guadalupe Ortiz Alonso. 24ean. 81 urte.
- Felix Garai Lizarralde. 24ean. 81 urte.
- Hilaria Markina Ferrer. 27an. 88 urte.
- Luis Barrutiabengoa Gaztañaga. Martxoaren 2an. 79 urte.

TXOKO
TABERNA

Eure berezitasunak pintxo eta mokau gozoak

Otalora Lizentziatua z/g Tfnoa: 79 20 10

Es Lu

ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE



MALEN ERRASTI *

Familiako derrigorrezko zerbitzuari intsumisia

Martxoaren 8 honetan, hauxe da gure kartelen leloa: "Familiako derrigorrezko zerbitzuari ez intsumisia". Gurea bakarrik dirudien eginbehar honetaz edozein emakume kexatuko zela seguru gauden arren, kontzientzia bat edo beste astin dezakeelakoan gaude. Gauzak ahalik eta garbien uztea gustatuko litzaiguke, gizon eta emakumei erreflexiorako dei bat eginez.

Besteak zaintzea (zerrenda luzea egin daiteke hemen: adinekoak, umeak, munisbaliatuak, ...) gizarteko beharra dela hartzen dugu oinarritzat, gizarte osoaren erantzukizuna eta ez gauza normal, onartu eta ezarritakotzat emakumeoi bakarrik inposatzen zaigun lana.

Gizonak, emakumeak, erakundeak... geure zatia banatu eta asumitzen ez dugun artean zuzena ez den egoera bat sortzen ari garela jakin behar dute, emakumea

despersonalizatzen duen jendeari lotuta eta haien zerbitzura edukitzen duen egoera, beti besteen munduan bizi izatea eragiten dion egoera, bere senar-ume-ama-aitaginarreba-ama-ginarreba-anaiezkongabeez gain, bera ere bizi dela, bera ere badela "beste gauza batzuk" egiteko gai, pertsona garrantzitsua dela ahaztaraziz. Hainbeste aldiz esan digute, izan ere, "geure gauza" dela, ezezkoa ematerakoan kostata egiten dugu, errudun sentimendua astinduz bezala.

Ez dugu eginbeharra ukatzen, konpartituta egitea errebindikatzen dugu.

.....

Emakumeen izkutuko lan hori ikustaraztea Erakundeei dagokie

Ez dugu proposamen konkreturik, baina bai hainbat ideia:

— Hau bezalako errealtate global bat, gizon zein emakumei berdin eragiten diguna, ez duela emakume izeneko sektore baten esku egon behar kontzientzia hartu beharra dago.

— Zerbitzu sozialen ga-bezia ikaragarria: doaneko haurtzaindegiak, erresidentziak, benetako laguntzak... ez zaio emakumeari bat ere laguntzen, isilpean bere egoeraz aprobetxatu baizik, lan hori egin egiten dute eta, dohainik gainera.

Emakumeen "Izkutuko lan" hori ikustaraztea, Erakundeei dagokien konpromezua da, eta baita publiko izan behar lukeena pribatutzat ez jotzea ere.

— "Etxeko bizimodua antolatzea", dakartzan ondorio guztiekin, euren lana ere badela asumitu beharko dute gizonezkoek. Ez dute balio lantegiko beste lanaren justifikazioek, edo horretarako ez dutela balio esateak, edo guk hobeto egiten dugula esanez erabiltzen duten txantaiak.

— Emakumeen aldetik ere kontzientzia hartzea, kristalen ditzira ez dezagun gure bizitzako arrazoi bihurtu, gizarteko baliapide gehiago esigitu, geure errealizaziorako denbora errebindikatu...

Malen Errasti
Emakumeen
Asanblada
(Erredakzioan
Itzulia)

USTEAK USTE

Elurtearen birusak

Elurra birus edo dena delakoan hiltzaile ei da. Arrasate eta inguruan jausi den elurteak burusak akatu baino, honek piztu edota biderkatu egiten ez ote dituen susmoa daukat, gaiotasunei dagokionean behintzat, nere ingurune ezagunean "bajak" gehitu egin dira eta.

Elurra "mara-marak" administrazioen gaitzetako bat ere jarri du agerian: kale eta errepideen tukunketa behar den moduan eta garaiz ezin egitearena, hain zuzen ere. Egunotan makina bat jubilatari entzun diot "orduko aguazilen bai, pala bizkarrean hartuta kalegarbitzen ematen zuten eguna; oraingoez berri..."

Baina duda barik biziki biderkatu dena telebistatik ezarena izan da: bideo-klibek abutzua egin dute, haurrek telebista barik egunak igarotzen ikasi behar izan dute eta geure bizitzan komunikabide honek duen eraginaz jabetzeko aukera izan dugu, irriti eta irakurketaren onerarako. Azkenik, lanera eta beste zereginetara joan beharrak aginduta errepideetan lepoa galtzeko zorian aritu izan direnen birusa ekarriko nuke gogora. Auskalo zeren eraginez, toro bilakatu zaigun klimak sasoi hobeak ekar diezazkigula. Amen.

JON GARAY

Lore lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE fnoa: 79 14 99

Plus Ultra
taberna

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tfnoa: 79 20 57

ARRASATE
PRESS
HARPIDETZAK



77 05 65

Hainbat talde kaleko kartelen kontrolaren aurka

Pasa den ostiralean burututako ez ohizko plenoan PSOEk aurkeztutako kartel, pintada eta pankarten kontrolerako mozioa onartu egin zen. PNV eta PSOEk emandako 11 botuei esker onartu zen beste alderdien 10 botuen kontra. Ezohizko Plenorako Pedro Mari Ruiz de Azua Zerbitzuburuak prestatutako proposamena ere herriko hainbat taldeekin adostasuna lortuta aurkeztua, atzera bota zen. Onartutakoaren arabera, pintadak egin eta pankartak jartzeko debekuak ez du huteskunde garaian baliorik izango, kalteak edo pintadak Udalaren diru-laguntza jasoten duten talde edo talde-ordetzkariren batzuk sortzen badituzte, kendu egingo zaie laguntza hori; taldeak udal ordetzakaritza dutenak badira, kaltearen zenbatekoa udal esleipenetik kenduko zaie eta kaltearen sortzailea hasieran identifikatu ordez, geroago identifikatu ezker, garbitu behar izan denaren zenbatekoa ordaintzea esijituko zaio.

Hainbat talde mozioaren kontra

Mozioa onartu aurretik herriko hainbat taldek kontrako komunikatua atera zuten: Zutik, IU, KAS, CCOO, STEE-EILAS, ESK, Emakumeen Asanblada, Egizan,



Udal Plenoak-publizitate ez komertzialari buruzko Eudelen araudia onartu zuen.

Kakitzat, EKI, Komite Internazionalistak, Senideak, Amnistiaren Aldeko Batzordea, Ikasle Abertzaleak, AGAKO, Jarrai, Hautsi, HIES-Ekimena, Tunantes den Norte, Askagintza, KT, Eguzki, Askapena eta LAB. "Adierazpen askatasunari berriro ere kalte izugarria egin zaiolakoan, gaitzestu eta baztertu egiten dugu ordenantza hau, eta baita adierazpen-askatasuna zentsuratzeko beste edozein ahalegin ere" hitzekin mozioaren kontra azaltzen dira. "Emandako arrazoia, duela urte batzuk emandako bera da: estetika

arazoak" azaltzen dute. Bestalde, egunkari eta bestelako komunikabideak denon esku ez daudenez, norbere ideiak aldarrikatzeko ezinbesteko-tzat jotzen dituzte kartelak.

Egoeraren islada

Horretaz gain, "ulertu eta errespetatzen dugu batzuei hormetan kartelak, pankartak eta pintadak ikustea ez gustatzea, baina geuk ulertu eta errespetatzen dugun bezala, besteek gu ulertzea eta errespetatzea ere nahi genuke" baina kartelak, pintadak, pankartak gaur egungo egoeraren ondorio direla ere

esaten dute: "fabriken itxiera, despidoak, erasoak, bortxaketak, atxiloketak, tortura eta beste hainbat arazoren ondorio". Gutunari amaiera emateko, "zalantza handiak ditugu benetan ardura diena kartelak, pintadak eta pankartak eurak diren edo horietan jartzen duena. Azkenik, esan beharra daukagu kartelak ipintzea ez dela gustoko dugun lana, baina horietan zalatzen ditugunak ere, ez dira gogokoak" esaten dute.

Alegazio epea zabalik dago, eta normala litzateke bat baino gehiago aurkeztea.

MENDI taberna

Mendi da zure etxea

Maalako Errabala, 4 Tfnoa: 79 20 54 ARRASATE

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiralez
Setatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99



Herriko hamabi gunetan daude semaforoak jarrita.

Iaz 4 milioi t'erdi zebra-bidetan eta milioi t'erdi seinaletan

Hiru motatako semaforoak daude Arrasaten, trafiko erregulatuak, oinezkoen pasua erregulatzekoak eta inteligentek. Trafikoa zuzentzeko semaforoak, Garibai bidegurutzekoak esate batera, tenporizadore bati esker dabilta; oinezkoentzakoak, berriz, berdez jartzen dira botoia sakatzera-koan, eta inteligentek, Gipuzkoa Etorbidetako kasu, zoruan jarritako erradarren bidez, ibilgailuei abiadura jaitsiaraztekoak dira. Semaforoak, guztira, hamabi gunetan jarrita daude, eta mantenimenduz Udaletxeko brigadakoak arduratzen dira.

Zebrabideei dagokienez, esan behar da

Arrasaten 139 daudela, 3.600 metro karratu markatuta guztira. Markatzeko, pintura edo bi osagaidun pasta erabiltzen da; pintura pasta baino merkeagoa da, 500 eta 950 PTA metro karratuko, baina gutxiago irauten du. Iaz, zebrabidetan 4.500.000 PTA gastatu zituen Udalak.

Trafiko seinaleak bi motatakoak dira: informatzaileak eta trafikoa zuzentzekoak, haietakoak 40ren bat daude eta hauetakoak 310. Seinale bakoitzak 15.000 PTA inguru balio ditu eta iaz mantenimenduan 1.500.000 PTA gastatu ziren, hortik %80a nahita hondatutako seinaleak berriztatzen.

Euskal ereduaren alde

Arrasateko ikastetxeetan datorren ikasturterako matrikulak egiteko epea martxoaren 15era arte zabalik dagoela eta, Udalak, AEDk eta EKBk euskal ereduaren aldeko kanpaina burutuko dute egun hauetan, D eta murgiltze ereduaren aldekoa. Kanpaina ostegun eguerdian aurkeztu zen udaletxean, eta bi diptiko banatu ziren, euskaraz eta erdaraz.

Lehenengo diptikoa Udalak eta EKBk landu dute, *Etorkizuna euskaraz dator* lemapean. Aurten lehenengo aldiz matrikulatuko diren 356 haurren gurasoei zuzentzen zaie. D ereduaren bultzatu nahi da. Kanpaina Euskal Herri mailan egingo da, eta diptikoaz gain, gutun batzuk bidaliko zaizkie gurasoei. Bigarren diptikoa Udalak eta AEDk kaleratu dute, arrasatearrei zuzenduta. Ikastetxe guztietako irakasleen laguntzarekin, D ereduaren eta murgiltze planaren aldeko apustua. Datorren ikasturtean maila ezberdinetan matrikulatuko diren neska-mutiko guztien gurasoei dago zuzenduta.



zortzi

**GIZON ETA
EMAKUMEAREN
MODA**

Otalaria z/g
Tfnoa: 79 20 50
ARRASATE

**ZENTRO
PSIKOPEDAGOGIKOA**

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa

Estimulazio goiztiarra

Erreabilitazio funtzionala
(Psikomotrizitatea eta
hizkun berreziera)

Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola
arazoak, enuresia
(Ohe bustitzea),
eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
Tfnoa: 79 48 77
ARRASATE

**Hilbera
kafetegia**

Urbarri Etorbidea
ARRASATE

**ARRASATE
HOTELA**

Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16

EPELDE

argazki denda

Iturriotz, 24
ARRASATE
TFNOA: 79 19 71

**ARRASATE
PRESS**

ARRASATEKO IKASTETXEETAKO IRAKASLEAK EUSKARAREN NORMALIZAZIOAREN ALDE ELKARTURIK!

*Arrasate
euskalduntzen
ari garelako*

*Etorkizuna
euskaraz
datorrelako*



Monterronen, 1993ko Martxoan

ARDURATU ZUEN HAURREK EUSKARAZ IKAS DEZATEN!



Arrasateko Udala



ARRASATE EUSKALDUN DEZAGUN



Ostirlean bertsolariak izan ziren San Viatorren, bertako ikasleen antolatutako saioan. Ez zen jende askorik hurbildu; baina euria kantatzen hasi aurretik ere bazen, e? **Mañukorta**, **Imanol Lazkano** eta **Jokin Sorozabal** dotore jarri ziren erretraturako.



Urtero bezala **Al Andalus** elkartekoek euren eguna ospatu zuten pasa den larunbatean. Jende asko bildu zen Musakolako Kiroldegian eta gehienak bertako jantziekin gainera. Sevillana lehiaketatik kanpo ere asko izan ziren dantzatzera animatu zirenak.



Txiki, gaztetxo eta nagusien gustora egin du elurra aste honetan. Aspaldiko partez, elurretako gizona, umeen edur-pelota gerrak, negu neguko botak, teilatu zuriak... ikusteko aukera izan dugu. Umeek, batez ere, orduak eta orduak pasa dituzte elurretan jolasean.

IZEN PROPIOAK

● Al Andalus taldeak antolatutako sevillana dantzen lehiaketan honako hauek izan ziren irabazleak: umeen mailan **Jesus Mari Ruiz** eta **Ainara Sedano**; gazteen mailan **Noemi Manzanos** eta **Oskar Gordillo** eta helduen mailan **Isabel Gomez Zafra** eta **Isabel Gomez Fernandez**.

● Pasa den larunbatean Hernani eta Donostiako Kiroldegietan izandako gimnasia erritmikako txapelketetan, Arrasate Gimnasia taldeko honako hauek klasifikatu ziren: pelotan **Amaia Gonzalez**, **Elena Lanuza**, **June Fernandez** eta **Melina Lopez**. Zinta mailan, berriz, **Elena Lanuza** eta **Jone Fernandez**. **Elena Lanuza**, **June Fernandez** eta **Amaia Gonzalez**ek finalerako sailkatzea lortu zuten.

● **Jon Salaberri** arrasatearra, HIESdunen ordezkaria da Bilbon burutzen ari den **HIESari buruzko Estatuko bigarren Kongresuan**. Kongresu honetan, arrasatearraz aparte, HIESaren inguruan lanean ari diren mundu mailako ikertzaile onenak bildu dira.

Futbito Txapelketa ZALDIBAREN



Zaldibar elurrez estalita, igandeko partiduak suspenditu

Elurrak, Arrasateko bizitzako arlo guztietan eragin handia izan zuen joan den asteburuan, eta normala denez, baita Zaldibarko Futbito Txapelketan ere. Larunbat gaueko elurteak ederki estali zituen bazterrak, Zaldibarko frontoia barne. Europan, ohitua dauden tokietan, eguraldiaren baldintzak ez dira normalean

oztopo izaten; hemen, berriz, asko jota urtean behin botatzen du eta dena hankaz gora jarri, gainera. Dena dela, ez dakit bada nik, elurrarekiko harremanaz ohituta dauden iparraldeko europearrek, igande goizean Zaldibaren futbitoan jokatzeko adorerik izango zuketean edo ez. Neuk behintzat ez nuke ohe-berotasuna utziko.



DEBA
GARAIA

MONDRAGON BERGARA ELGOIBAR

Arrasaten, Iturrioz, 23 azpia
Tifnoa: 77 13 02

Eros dezaket pisu bat hirierdian, lasaia, eguzkitsua, ikusbideekin, 3 logelakin eta trastelekua eta guztiz hornitua, baldin badauzkat 1,5 miloi pezeta eta 45.000 pzta / hilero?

SEGURASKI BAIETZ !

**NUEVO
taberna**


Bañez Dokforea, 15
Tfnoa: 79 99 88
ARRASATE

a taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ARRASATE KIROLAK	1	1	0	0	6	0	2
ARGI	1	1	0	0	6	1	2
ZULOAK	1	1	0	0	4	1	2
LOS DIMY	1	0	0	1	1	4	0
ARRASATE KRISTAL	1	0	0	1	1	6	0
NUEVO TABERNA	1	0	0	1	0	6	0
TXOKO TABERNA	—	—	—	—	—	—	—
PEPELUS	—	—	—	—	—	—	—
GUZTIRA	6	3	0	3	18	18	6

b taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ZIZTI ZAZTA	1	1	0	0	5	1	2
DIEGO ANTONIO	1	1	0	0	6	4	2
KAIKO LENIZ	1	0	0	1	4	6	0
PUBLICOOP	1	0	0	1	1	5	0
MONTERREY TAB.	—	—	—	—	—	—	—
LORATEGI POTROAK	—	—	—	—	—	—	—
NOSKI	—	—	—	—	—	—	—
SUM. IND. UGARTE	—	—	—	—	—	—	—
GUZTIRA	4	2	0	2	16	16	4

c taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ZULUS	1	1	0	0	4	1	2
ADELAIDA HAIZEA	1	1	0	0	3	2	2
NOTXINGAN FLO.	1	1	0	0	3	2	2
DANOK LAGUN	1	0	0	1	2	3	0
GURE LEKU	1	0	0	1	2	3	0
BIZKORRAK	1	0	0	1	1	4	0
JODO FLORO	—	—	—	—	—	—	—
MIKELOS	—	—	—	—	—	—	—
GUZTIRA	6	3	0	3	15	15	6

d taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
BETRAYER	1	1	0	0	4	1	2
KOKKAS	1	1	0	0	5	3	2
LASO ARREGI	1	0	1	0	3	3	1
URMAY B. K.	1	0	1	0	3	3	1
LENIZ GARAGAR.	1	0	0	1	3	5	0
LOS HEREDIA	1	0	0	1	1	4	0
MOTZ.	—	—	—	—	—	—	—
TRIKITI	—	—	—	—	—	—	—
GUZTIRA	6	2	2	2	19	19	6



Haritz Azkarraga (Antolatzailea eta arbitroa)

Haritz Azkarraga iaz sartu zen Zaldibarko Futbito Txapelketako antolatze-lanetan, baita buru-belarri sartu ere, arbitratzen ere hasi da eta. "Futbolaren oinarrizko gauzak jakitea nahiko da arbitratu ahal izateko, hori eta ikusten dena pitatu, ez dago beste sekretorik". Haritzek normalean neutraltasun osoz


arbitratu nahi izaten du, baina kasu batzuetan ezinezkoa egiten zaio. "Taldeak ezagutzen ditugu, eta aurrez jakiten dugu zein taldek sor ditzakeen arazoak eta zeinek ez. Horrelakoetan norbera gogorra izateko posturan joaten da, lehenengoan moztokotan".

Haritzen ustez, txapelketako gauzarik onena anto-

lakuntza da; txarrena, berriz, lehen faseko taldeen arbitraiak.

Haritzek berak txapelketan ere hartu du parte, baina bere taldea, *Ganbelas*, dagoeneko txapelketatik kanpo dago. *Fosforos* jotzen zuen txapelketa irabazteko gai, baina eliminatuta daudenez, *Argi Ibilik* irabazi ei dezake.

Miren Garai Estetika Zentrua



- Gure Espezialitateak:**
- Loditasuna: Goserik pasatu barik.
 - Tratamendu Organuterapikoa
 - Zelulitisa: Liposukzio eta lipoeskultura bidez.
 - Barizeak: Infiltrazioa eta Zirugia
 - Zirugia Estetikoa

Zarugalde 23-2. ezk. 79 96 90



PINTURA EKOLOGIKOAK Diferentzia: zure osasuna

Zoru arinak. Saipolan. Ceflex. Neurritako felpudoak. Pertsiana biribilkagarriak. Ehunezko hormatakoak. Kortxoak. Moketa losetan.

Ferrerias, 35 ARRASATE Tfnoa: 79 12 87

BELARRIRA

Atzeratutakoak 13an

◆ Elurraren erruz igandean suspenditutako partiduak martxoaren 13an jokatuko dira, larunbatez, beraz. Horrela, hirugarren ihardunaldia jokatuko beharrean, atzeratutako partiduak bakarrik jokatuko dira aipatutako asteburuan.

San Jose zubian jai

◆ San Jose zubian ez da ihardunaldirik izango. Normalean jende asko herritik kanpo irteten da eta antolatzailerik partidurik ez jokatzea erabaki dute, taldeek arazorik izan ez dezaten.

Zozketarik ez

◆ Aste honetan ez da afa-rien zozketarik burutu. ATBk izandako arazo teknikoen ondorioz eta zozketak jendaurrean egin nahi direnez, ez egitea erabaki zen. Horrela, mihiluzeek ez dute zeresanik izango.

Asteko partiduak

◆ Asteko partidurik interesgarrienak honako hauek dira: Sum. Ind. Ugarte - Noski, Argi Ibili - Pepelus, Lenitz Garagardotegia - Los Heredia eta Danok Lagun - Jodo Floro.



Zaldibarko Txapelketara benetako arazoak, elurraren ondorioz, noski, igandean iritsi baziren, larunbatean jokatzea ere, ez zen erraza izan. Euria eta hotza nagusi. Futbitoan behar bezala egitea gehiegi eskatzea izan zen eguraldiaren baldintzak medio. Jokalarientzat bezala, ikusleentzat erosotasun gutxi Zaldibarko harmailetan.

EMAITZAK

A TALDEA

- Argi Ibili 6 Arrasate Kristaldegia 1
- Pepelus — Txoko taberna—
- Arrasate Kirolak 6 Nuevo taberna 0
- Los Dimy 1 Zuloak 1

C TALDEA

- Sum. Ind. Ugarte —Monterrey taberna—
- Noski — Lorategi Potroak—
- Kaixo Leniz 4 Diego Antonio 6
- Publicoop 1 Zizti Zazta 5

B TALDEA

- Mikelos — Jodo Floro —
- Zulus 4 Bizkorak 1
- Notxingan Florest 3 Danok Lagun 2
- Gure Leku 2 Adelaida Haizea 3

D TALDEA

- Trikiti — Motz—
- Betrayer 4 Los Heredia 1
- Urmay Burger king 3 Laso Arregi 3
- Koxkas 5 Leniz Garagardotegia 3

Trikiti S.L.

SOINUA • BIDEOA • TB • KOMUNIKAZIOA

Otalora, 25 ARRASATE Tfnoa: 77 13 20 Faxa: 79 88 56

ASTEBURU HONETAN

Larunbata 6


Zaldibar

- 08.45 Kaixo Leniz / Publicoop
- 10.00 Zuloak / Txoko taberna
- 11.00 Sum. Ind. Ugarte / Noski
- 12.00 Adelaida Haizea / Bizkorak
- 13.00 Urmay Burger King / Koxkas
- 14.00 Danok Lagun / Jodo Floro
- 15.00 Nuevo taberna / Arrasate Kristaldegia
- 16.00 Zizti Zazta / Lorategio Potroak
- 17.00 Diego Antonio / Monterrey taberna
- 18.00 Leniz Garagardotegia / Los Heredia
- 19.00 Laso Arregi / Motz

Igandea 7

Zaldibar

- 08.45 Trikiti / Betrayer
- 10.00 Mikelos / Zulus
- 11.00 Arrasate Kirolak / Los Dimy
- 12.00 Argi Ibili / Pepelus
- 13.00 Gure Leku / Notxingan Florest




15. astea

NON DAGO BALOIA?

- Erantzuna
- Izena
- Tfnoa



Hor dituzue **Pili** eta **Espe**, joan den hileko sariaren irabazleak, erdian Otalora sendagilea. Emakumezko biek, Zerkaostetako Ginekologi Kontsultan egiten dute lan eta txarteltxoak elkarrekin bidali zuten.



Trikipublic

Kanpatorpea, 2

Tfnoa: 79 31 33 Faxa: 79 88 56 ARRASATE

- Publizitate kanpainak •
- Diseinu grafikoa •
- Artikulu publizitarioa •
- Zuzeneko publizitatea •
- Bideo produkzioa •

● *Rosamel Millamán*

Maputxeen ordezkaria Arrasaten

Txileko maputxea da Rosamel, bere deiturak "Arrano horia" esan nahi du. Gaur egun, antropologian dokortua egiteko zain dago eta indigenen aldeko elkarte bateko ordezkaria da ONU. Ameriketako bostgarren mendeurrenaren kontra ere aritu da. Herrien autodeterminazioaz lotutako gaiez interesaturik, Euskal Herrian izan da.

— Zer mezu ekarri duzu gure herrira?

— Herriek autodeterminazioaren duten joera interesatzen zaigu, beharbada indigenen artean ere antzeko gauzak planteatu eta lortu nahi dutugulako. Badakigu, historia desberdinak ditugula eta beharbada lortu nahi ditugun gauzal lortzeko jarraitu beharreko prozesuak ere desberdinak izango direla, baina herri desberdinen arteko harremana sortzea oso inportantea da, sistema politiko-ekonomiko eta militarri aurre egiteko modu bakarra izan daitekeelako. Euskadiko historia eta denbora horretan egon den borroka oso inpor-


tantea da, eta bide batez, hori ezagutzeak ere asko lagunduko digu, erreferentzia bezala behintzat.

— Eta zer moduz hemengo jendearekin izan dituzun harremanak?

— Batez ere jende gaztearekin hasi ditut kontaktuak. Baina hauekin harremanak mantentzeaz gain, zuzendari politikoeekin ere edukitzea funtsezkoa da. Harreman hauek hasteko nahikoa da hemen egotea eta hau ezagutzeta, eta hori da lortu nahi dudana. Beharbada zuzendari eta politikako beste karguekin harreman hori izatea azkoz ere zailagoa izan daiteke.

— Zein da gaur egungo maputxeen egoera?

— Beno, esan behar da maputxeok oso egoera larria bizi izan dugula, diktadura garaian batez ere. Komunitateko lurrak, guztion lurrak ziren haiek pribatizatzea zen diktaduraren asmoa. Gaurko egoera, elkar lotuta dago Allenderen gobernuan bizi genuen egoerarekin, orduko eragina jasaten dugula esan daiteke. Ez da denbora asko pasa Txileko Gobenuak lege



berri bat onartu zuenetik. Lege berri horren bidez, eskubide batzuk aldarrikatzeko erraztasuna izango dugu baina arazo larrienak ez dira konponduko, sakoneko arazoak berdin geratuko dira. Politikoki geure iritziak azalduko ditugu eta nolabait parte ere hartuko dugu, baina egia esan, lege honek ez digu garrantia asko eskaintzen.

— Diktadura aurretik nolako gizarte motan bizi zineten maputxeok?

— Gainontzeko herri indigenen antzeko sistema genuen. Espainiar inperialismoa Amerikara heldu zenean, eurekin antzekotasun gehiago zuten herriak inbaditzea, maputxeen herriak hartzea baino askoz ere, errazago izan zen. Gure herrian ez zegoen

inolako botere zentralizaturik, ez zen posible generalarekin edo jaun batekin hitz egitea, traturik egitea. Hortik zetorren gure herriak jarritako erresistentzia osoa.

— Gaur egun, zenbat maputxe zarete?

— Iritzi desberdinak daude. Diktaduraren arabera, 250.000 gara; elizaren ustez, berriz, 600.000; baina guk esaten dugu milioitik gora gara, eta kontinente osoan badirudi indigenak 60 milioitik gora gara.

Maputxeentzat oso inportantea da lurrarekin lotura edukitzea eta puntu honek asko lagundu zigun erresistentzian. Baina gaur egun, jende asko irten da komunitetetik eta hirira joan da lanera; jende hau esplotatuta dago gehien bat. Horretaz gain, gure hizkuntza ere ia galduta dago, espainola ikastera behartu egin gaituzte eta. Gaur egun, gure hizkuntza erreku-peratzeko joera dago eta talde konkretu batzuk horretan ari dira, badakigulako nola garrantzia duen horrek.

● **“Badakigu historia desberdinak ditugula, baina herri desberdinen arteko harremana sortzea oso inportantea da”**

Baserria eta emakumea: betiko lotura

Rosa Mondragon

Ezin da imaginatu ere egin baserri bat emakumerik gabe. Betidanik izan duen pisua hain handia izan da ze, emakumerik gabeko baserriak denborarekin desagertuz joan dira. Hala ere, bizimodu modernoa medio, gauzak asko aldatu dira, eta are gehiago baserri munduan.

Gaur egun ondo nabarmendu behar dira bi baserri mota: baserritik bizi direnak edo ta baserritik bizi bai baina kanpoan ere lan egiten dutenak eta diru sarrera finkoa dutenak. Bi mota hauek kontutan izaten baditugu, emakumeek izan duten egin beharrean ere desberdintasun handiak somatzen dira. Baserritik bizi diren familia guztietan emakumearen lana lagungarri izaten da gehienbat; baina gizonak kanpoan lan egiten duenetan, emakumearen papera funtsezkoa da, berari tokatzen zaio

etxekolanak egitea eta baita baserria mantentzea ere. Bizitza modernoak ekarri dituen aldaketak direla medio, gero eta gutxiago dira baserritik bakarrik bizi diren familiak eta, gero eta gehiago kalera jeitsi edota baserria izan zen hura txalet polit bihurtzen dutenak.

EMAKUMEA, BEHARREZKOA

Ezin da imaginatu ere egin baserria emakumerik gabe. Emakume baserritar baten lana bikoitza da: soroan eta etxe barruan lana egitea tokatzen zaio eta, baina beti gizonaren lana eta emakumearena desberdintuz. "Nire kasuan konkretuki gizonak asko laguntzen dit etxeko lanetan eta nik ere baserriko lanetan denetik egiten dut: simaurra atera eta zabaldu, behiak jeitsi, tratorearekin ibili... Hala ere, badakit kasu gehienetan ez dela horrela izaten eta emakumeari, baserriko lanetan lagundu ondoren, etxekoak ere egitea tokatzen zaiola" esaten digu Mariasun Zaloñak, baserritik bizi den emakumeak. "Gure baserrian — azaltzen du

Amaia Iturbek, Ikutixo baserrikoak— beti egon da desberdintasuna, emakumeok baratzeko lanak egin izan ditugu beti eta gizonek, berriz, mendikoak edo ikuilukoak"

PRODUKTUAK AZOKARA

Lehen baserrian botatako izerdien emaitza, nolabait azoka eta ferietan ikusten zen. Azokan emakumearen bidez eta ferietan gizonaren bidez,



Lehen bezala, orain ere, gizonak feriara eta emakumeak azokara.

baina denborarekin hau ere aldatuz joan da eta kanpotik etorritako produktuek eragindako konpententzia dela eta, gero eta gutxiago dira bere produktuak azokara ekartzera animatzen direnak. "Lehen astero jeisten ginen azokara. Ia ziur genekien porru sorta bat atera eta azokan denak salduko zirela, baina gaur egun, hamar eraman eta laurrekin bueltatzen gara etxera". Hala ere, baserriko produktuekin batera kanpotik ekarritakoak eta negutegikoak ere saltzen dituzte askok, "Orain dela hiru urte hasi ginen bestelako produktuak saltzen eta egia esan, jende askok baserrikoak baino gehiago erostek ditu, askoz ere garbiagoak dira, txukunagoak eta nahiz eta artifizialki izan, askoz ere hobek" azaltzen du Amaia Iturbek.

LAGUNTZA FALTA

Erakundeen aldetik laguntza falta nabaritzen da.

Orain dela hamar bat urte gizona zen aseguru soziala zuen bakarria eta urteekin emakumeek ere erraztasun gehiago izan dituzte bertan sartzeko. Hala ere, oraindik oso gutxi dira aseguruan sartuta daudenak, beharbada kontzientzia faltaren ondorioz. Bestalde, bertako baserriko produktuak babesteko beharra ere ikusten da. "Horrela jarraitzen badugu, pixkanaka desagertu egingo dira dauden baserriak. Beharrezkoa da bertako produktuak babestea, kalitate maila bat ezartzea eta prezioak hobetzea". Hala ere, emakumeen talde berriak ari dira sortzen, EHNE sindikatukoak bezalakoak, eta horietan ere laguntza bat eskaintzen da. "Askotan nahikoa izaten da gure arazoetaz hitz egitea eta bakarrik ez gaudela konturatzeari; kontzientziaztea da inportanteena, gure lana baloratzen ikastea eta horretarako gure arteko harremanak sendotzea da funtsezkoa da".

HARREMANAK GALDU

Baserriko bizimodua gogorra da, kalekoek imajinatzen ez duten bizimodua. Baserriko lanek, nolabait lotura bat sortzen dute eta bertatik irtetea ere ez da erraza askotan. "Askotan lagunak ere galdu egiten dira, kontaktua gero eta txikiagoa izaten da. Nire kasuan, konkretuki irteetan naizen bakoitzean, gizonarekin izaten da" Bestalde, baserrian ez dago oporrik, beti dago zerbait egiteko eta are gehiago baserri bizi direnentzat. "Orain dela urte batzuk Holandan egon ginen eta arlo honetan askoz ere aurrerago daude. Gobernuak pertsona batzuk kontratatu, eta urtean hilabete behintzat baserriko lanak egiten dituzte, baserriarrei oporrak hartzeko aukera emanaz. Hori da hemen behar duguna, baserriarren bizitza erosoagoa egitea, batez ere".

"Baserriko produktuak defendatzen ez badira, baserria bera piskanaka desagertuz joango da"
Mariasun Zaloña.

"Ia baserri guztietan emakume eta gizonen lan desberdinak egiten dituzte"
Amaia Iturbe.


Formazioa eta informazioa

EHNE sindikatuaren barruan emakume baserriarren taldea sortu da horien inportantzia baloratu eta gorputz osatu bat sortu nahian. Orain arte, urte askoan, banaka lan egin duten emakumeen taldea dinamizatu eta elkarte bat antolatzea izan da helburua, eta horren bidez, elkarren arteko harremanak sendotu, baserrian bizi izateko teknika eta ideia berriak ezagutu eta era berean norberaren lanari balore bat eman. "Orain arte, eta gaur ere toki askotan, emakume baserriarrek egiten duten lana ez da baloratzen eta emakumeak berak ere ez dio aparteko garrantzirik ematen. Elkarte honen bidez, egoera hau hobetzea espero dugu, bai sozialki eta baita partikularki ere" esaten digu Maite Aristegik, emakume baserriarren taldeko ordezkariak. Taldea sortu berria denez, ematen zaizkion



Maite Aristegi

laguntzak oso txikiak dira eta hitzaldiak, batzarrak eta bestelako bilerak antolatzen dituzte, emakumeen arteko harremana sendotzea izanik lehendabiziko helburua. "Bata bestearekin harremanetan jartzea da hasierako asmoa, horrek bestelako kontaktuak erraztuko dituelako". Gaur 60 emakumek osatzen dute taldea eta batez ere Gipuzkoan hartu du indar gehien, beste herrialdeetan hasierako pausak eman direlarik.





uhaitzaren eguna Arrasaten lehenengoz ospatu zeneko erretratua. 1954a zen, eta Santa Barbaran egin zen zuhaitzen aldaketa, artean Santa Barbara parke bezala erabat jarri barik zegoenean. Goiko Baluko zuhaitz handiak bota egin ei zituzten, gerra denborako metraila asko zutela eta usteltzen zeudelako. Bestela, orain Beheko Balun dauden bezalako zuhaitzat ei zeuden goian ere.

La Asunción ikastetxeko neskak taldean joan ziren egun hartan Santa Barbarara, negua izan behar zuen, jantzita zituzten kapengatik.

Ezkerretik hasita, zutik, **Lurdes Egidazu, Maria-txen Arkauz, Mari Mertxe Mendizabal, Maria Angeles Berezibar** eta **Cerezo** deitura zuen interna bilbotarra.

Makurtatu, ezkerretik, **Rosarito Zeziaga, Pilar Jimenez** (Guardia Zibileko Tenientearen alaba) eta **Carmen Zabala**. Atzean, ezkerreko aldean **Mari Tere Markaide** eta **Damiana Gordobil** eta eskumako aldean **Rosita Agirre** eta **Nines Bermejo**.

Orduan eguna jai ematen zitzaien eskolako umeei, baina eurek ez zuten zuhaitzik

landatzen, Udaletxekoek zela egiten zuten ikusi bakarrik. Hara joan aurretik goizeko 8etan mezatara joanak behar zuten neskatilok, misala eskuetan dute eta. Misalaren kontu honekin bada gauza aipagarririk, izan ere estanzan beteta izaten zen, norbere urtebetetze egunean lagunek oparituta. Ikastetxean bertan saltzen zituzten, eta estanza ematen zuenari Ikastetxean bertan eros anisezko bola edo txupa-txusa ematen zitzaion; azken horiek orduantxe modan jarria, sekulako arrakasta izaten zuten.

L



Mondeo

Mugarri

Mondeo



Barruko indardun edertasuna

Injinerutza aurreratua eta aitzindaririk gabeko maila teknikoa.

HEZIBIDE

Matrikulazioa zabalik!

- ◆ **PROIEKTU EUSKALDUNA.**
- ◆ **ERREFORMARA EGOKITUA.**
- ◆ **TALDE PEDAGOGIKO SENDOA
ETA ERAGINKORRA.**

Izenematea martxoaren 1etik 15era.



UMEZAINZA
Haur-Eskola
0-6 urte
Tfnoa: 79 01 02



SAN FRANTZISKO XABIER
Ikastola
2-16 urte
Tfnoa: 79 26 40



SAN VIATOR
Ikastola
6-20 urte
Tfnoa: 79 04 11

ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎

Etxebizitzak

- Arrasaten edo inguruetan eskailararik gabeko etxe baten bizileku edo logela behar dut. Dei egin 77 05 65 tfnora.
- Garajia salgahi, itxitxa. Atxabaltan, Errekabarrenen. Tfnoa: 79 58 98.
- Etxea salgai Aretxabaletan, berrituta eta jantzita. 71 54 04 tfnora dei egin.

Lana

- Esperientziadun neska prest dago umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 13 66. Arantxa.
- Etxetik lan eginez dirua irabazi nahi duzu? Bidali sobre bat zure helbidearekin eta zigilu eta guzti helbide honetara: 161 Postakutxa. 20.550 Aretxabaleta.
- Esperientziadun andra gertu dago umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 72 92.
- Latin eta griegoko klaseak emango nituzke. Tfnoa: 79 50 88. Garbiñe.
- Neska bat prest dago umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 39 49.
- Esperientziadun neska etxeko lanak egin eta umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 72 92.

- Esperientziadun mutilak pertsona nagusiak zainduko lituzke. Atarteak garbitzeko ere prest nago. Tfnoa: 79 50 30. Jose Miguel.
- Andra euskalduna etxeko lanak egin eta umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 07 73.
- Emakume euskalduna arratsaldez etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko prest. Tfnoa: 77 05 90.
- Alemanez mintzatu nahi duzu? Metodo erreza eta atsegina. Ama-hizkuntza ikasi zenuen bezala, gramatika gabe, ordua aukeratuz. Tfnoa: 79 41 23. Altzaga jauna.
- OHOk klase partikularrak emango nituzke. Tfnoa: 79 69 41. Arantxa.
- Esperientziadun neska euskalduna behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Dei egin 79 21 63 tfnora. Utzi mezua erantzungailuan.
- Frantzeseko klase partikularrak ematen dira. Tfnoa: 79 45 51. Eva.

Salerosketak

- Salgai: Garbitasuna egiteko Vaporetto bat, Ormako erloju bat, Wasili jarlekua, zutikako lanpara eta kuadro batzuk. Aprobetxatu aukera! Tfnoa: 79 64 50. Milagros.
- Salgai Taunus Tropicano 10-F berogailu-hai-zagailua.
 - Mepamsa 542 DSE butanozko berogailua.

- PCrako 2MB-ko RAM memoria (SIMM-ak). Prezioa: 9.000 PTA.
- "Ideal 1.034 A" Din A-4 neurriko gilotina. Guzti hauetarako dei egin 77 08 15 tfnora. Kepa.

- Fagor markako etxeko labe elektrikoa salgai. Oso egoera onean dago eta prezioa ere oso ona da. Gaineko (enzimera) su elektrikoa oparitan doa labearekin. Tfnoa: 79 82 47. Marielen.

- Yamaha 250 c.c 88. urtekoa eta Kawasaki 125 c.c 87. urteko motorrak salgi. Dei egin 71 42 22 tfnoara. Jon.

- Moto Guzzi California Custom salgai. 450.000 PTA. Tfnoa: 79 87 62. Joxe.

- Nintendo kontsola eurokonektorea behar duena salgai 7.500 PTAan. Hainbat joku 3.000-5.000 PTA artean. Tfnoa: 71 40 19. Igor.

- Nissan Vanette SS-AG furgoneta salgai. Tfnoa: 51 51 41

Denetarik

- Erloju bat topatu nuen Monterron aurreko zelaian, zurea bada, Maala kaleko "Arrabala" dendatik pasa edo dei egin gaez 79 80 25 tfnora.

- Lentilak aurkitu nituen Ferrerrias kalean, deitu 77 05 65 tfnora.

Aste Gazte

Martxoak 8 Gazte Batzordea

• Arrasateko gazte talde batek "Martxoak 8 Gazte Batzordea" sortu du, emakumeen nazioarteko egunaren inguruan zenbait ospakizun burutzeko asmoz. Ostiral (5), larunbat (6) eta astelehenean (martxoak 8) ekitaldi ugari izango dira.

LHI azterketa libreak

• Teknaikari Laguntzaile titulu lortzeko azterketa

libreak aurten egiteko asmoa duzueni: deialdia hile honetan kaleratuko da. Epea 15 egunetakoa besterik ez da. Adi egon.

Bekak

• 93-94 ikasturterako ikertzaileak prestatzeko bekak. Eusko Jaurlaritzaren deialdia. Arloak: ezagupenaren alor orokorra. Estatu espainol eta atzerriko. Epea: apirilak 29.

• Eguzki-indarraren arloko proiektista-instalzaile

diploma lortzeko "Censolar" bekak. BBB edo LH ikasketak dituzten 18 urtetik gorakoei zuzenduak. Epea: apirilak 30.

Mendi eskia

• V. Mendi Eski Zeharbi-dea. Martxoak 28. Sallent de Gallego. Izenematea: martxoak 25a baino lehen, 2.500 PTA.

Antzerki Astea

• Eibarko 16. Antzerki Ihardunaldiak. Martxoan osoan zehar, Hezkuntza Konplexuko Antzeztokian, arratsaldeko 8.30etan.

"Kontutan izan dezagun beti iraganak emakumeoi zor diguna eta etorkizunari guk zor dioguna"

**Amelia Varcancel
Filosofo feminista**



**Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65**

BERTSOAK

ATB eta ARRASATE PRESS

1

Gure herrian ondo horniturik gaude komunikabidez osaturik aurkitzen gara bertako berri eta albistez urteak urtera mejoratzen dijoazte zorionez zorianak ATBri eta zorianak Arrasate Press.

2

Langintza hontan hasi zirela pasa dira hiru urte eta saiatu dira lanean dudarik gabe jo ta ke entzule eta irakurleok pozez beterik gaude eutsi goiari aurrera ere berdin jarraitu zazute.

MAXIMO LETONA



ZER NAHIAGO?

Marcelino Gonzalez

Foto-Imagen dendakoa

• **Kolore ala zuri beltzeko argazkiak?**

Zertarako den. Zuribeltzean ere oso argazki ederrak egin daitezke, bietara.

• **Makina manualak ala automatikoak?**

Neuretzat eta gustatzen zaionarentzat manualak, baina orokorrean, jendeak hobeak egingo ditu automatikoak.

• **Erretratuak ala paisaiak?** Erretratuak.

Jendea gustatu egiten zait, bere espresioa, paisaia ez bezala, manejatuta egin dezakezu, eta paisaia berriz, hor egoten da.

• **Ezkontzetan argazkiak egitea**

gustatzen? Bai, interesgarria da, eta horretatik bizi naiz. Neska eta mutil guapoak izanez gero, asko disfrutatzen dut nik.

• **Egin duzun argazkirik politena?** Azkenak, alabari egin dizkiodanak.

• **Eta zeuk ondo irteten duzu argazkietan?** Kamararen atzean egoten naizenez, ez dut ia sekula irteten. Jendeari ez zaio gustatzen nola irteten duen, eta baino guapoago ez irten nahi izatea. Normala da ezagutzen ez ditugun espresioak izatea.

• **Kartetan egitea gustatzen?** Musean.


• **Zenbat denbora daramazu negozio honetan?** Arrasaten zortzi urte, eta aurretik Madril en nuen denda.

• **Argazki zahar asko gordetzen duzu?** Jakina! hori historia da.

• **Argazkilari ona zarela uste duzu?** Tira, bai, baina besteek esan beharko lukete hori, ezta?

• **Gustatzen zaizu zure izena?** Ba!, daukadana da...

• **Aukeratu argazki polit bat egiteko, Arrasateko toki bat?** Monterron, edo ondo zaindu eta berritutako baserri baten barrukaldea.



HAURTXOA
Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90
ARRASATE

beinke

ARRASATE PRESS
HARPIDETZAK
77 05 65

"EDERTU"
ileapaindegia
San Andres auzoa
Tfnoa: 79 04 28

FAGOR

TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOIA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

• ESAERA ZAHARRA •

“Elur-urte,
ezkur -urte”

• JEROGLIFIKOA •

K N

Nola utzi duzu zigarroa?

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7	8
9							
10							
11				12			13
14				15			
16			17		18		
19					20		

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Udaltzaina. 9. Lazdura. 10. Zaldibarreko Futbito Tvapelketako ekipoa. 11. Bildur. 12. Listua. 14. Sartu adiztaren infinitiboa. 15. Arsenikoa. 16. Infusio mota. 17. Garbi. 19. Deus. 20. Nasa.

Bertikalak 1. Berri. 2. Ezgai. 3. Bakarti. 4. Ate hitz elkartuetan. 5. Zikin. 6. Buztanak. 7. Mordo. 8. (Ald.) Nafarroako ibilgailuetan. 13. Kereila. 17. Ez eme. 18. Eta.

• HOROSKOPOA •

Aries Belarriko min izugarriaz egongo zara aste osoan zehar.

Taurus Auto berria probatzeko egunean istripu txiki bat izango duzu.

Gemini Arazoren batzu dituzula eta, oso urduri ibiliko zara.

Cancer Asteko egunik onena ostirala izango duzu. Aprobetxatu!

Leo Otsailaren hamalauan mutilari egin zenion oparia ez zitzaion batere gustatu.

Virgo Maiteminduta zaudela eta sekula baino aztoratuagoa ikusten zaitut.

Libra Lur jota zauden arren, altxa animo hori eta egon garai hobeen esperoan.

Scorpio Ez ezazu gehiegi abestu, euria egingo du eta.

Sagitarius Ikaragarrizko izardi usaia daukazu. Xaboa zertarako den ez dakizu, ala?

Capricorn Haratuzteak direla eta, zorakeria “hori” egiteko aukera ezin hobea...

Aquarius Ametsgaiztoak dituzu, baina lasai, ametsak besterik ez dira.


Piscis Goiko pisuko mutilarekin “moskeatuta” ibiliko zara.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



EGVZKIGRAF


Grafikagintza. Tipografia.
Offset industrialia

Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

OSORIK
PUB

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE




ONDO JAZTEA ETA GAINERA EROSO JOATEA GUSTATZEN BAZAIZU...


Elisabeth

ZUGANDIK HURBIL ETA HARRITUKO ZAITUEN PREZIOEKIN
SAN ANDRESEN, AUTOBUS GELTOKI ONDOAN

Araba Etorbidea, 18. Thoa: 77 14 86 ARRASATE



KIROL BAKOITZERAKO ERANTZUN BAT



ARRASATE
KIROLAK

Kontzezino Kalea, 8 - Tel. 794612
ARRASATE-MONDRAGON